

INBERTSIO PLANA 2018



2017ko urriaren 27a

2018rako INBERTSIO PLANA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Inbertsio Planaren helburuak	1
3. 2018ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak	2
3.1. Ur azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatuetarako inbertsioak	2
3.2. Mankomunitatea/AUSAren ekimenez egindako obra berrietarako inbertsioak.....	2
3.3. Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak.....	4
3.4. Inbertsioak guztira	5
4. Planean jasotako inbertsioen memoria	6
4.1. Ur azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatuetarako inbertsioak	6
4.2. Mankomunitatea/AUSAren ekimenez egindako obra berrietarako inbertsioak	7
4.3. Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak	16
5. Gauzatu ahal izateko diru sarrera jakin batzuk egitea edo kostuak aurreztea beharrezkoa duten inbertsioak	20

2018rako INBERTSIO PLANA

1. Sarrera

Añarbeko Uren Mankomunitatearen Estatutuetako 12.2 artikulua xedatukoari jarraituz, haren Biltzarraren eskumena da Mankomunitateak gauzatu beharreko obretarako Inbertsio Plana onartzea. Artikulu horrek dioena betetzeko, beraz, 2018ko aurrekonturako honako Inbertsio Plan hau formulatu da. Inbertsio Plana ekitaldi horretarako aurrekontu orokorraren dokumentuan txertatuta ere, planari buruzko bozketa berezia egin liteke, aipatutako artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta.

2. Inbertsio Planaren helburuak

Inbertsio Planaren helburua, hain zuzen ere, bere emakida tituluari esker Mankomunitateak eskubidez dituen ur baliabideen erabilera eraginkor eta eragingarrienerako beharrezko inbertsioak gauzatea da, eta horretarako, aginduta dituen eta beharrezkotzat jo diren hornidura eta saneamendu azpiegitura guztien eraikuntza, zaintza eta ustiapen egokiak bermatu beharko ditu. Bide beretik bermatu beharko du, halaber, edateko uraren goi hornidura eta hondakin eta euri uren saneamendu zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren inbertsio ekintzak ahalik eta egokien egitea, ingurumenari begira eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako biztanleek horri dagokionean dituzten beharrak asetzeko.

2015era arteko ekitaldietan, orokorrean aurrekontuaren eta bereziki inbertsioaren murrizketa nabarmendu zen, garai hartan ekonomia orokorrak eta tokiko ogasunek zein erakunde eta enpresa publiko guztiek zuten testuinguru ekonomiko zaila zela tarteko. Alabaina, 2015ean hasita, eta 2016an zein 2017an jarraituz, pixkana-pixkana, krisiaren aurreko inbertsio balioak lehengoratzeko prozesuan gaudela esan genezake - nahiz eta ekitaldi batzuk gehiago behar izan horretarako-. Hori guztia, jakina, testuinguru ekonomiko orokorraren bilakaeraren arabera izango da, bai eta Mankomunitateko gobernu organoek eta haren kudeaketarako sozietate publikoak horri begira hartzen dituzten erabakien arabera ere: urteko tarifa hazkundera, AUSAren zorpetze politika, etab.

Hala bada, Inbertsio Planak azken urte hauetan izan dituen helburuak errepika daitezke 2018. urterako ere. Alegia, ekitaldian zehar mantentzea, hertsiki eta ahal den neurrian bederen, Mankomunitatea/AUSAren titularitateko hornidura eta saneamendu azpiegitura hidraulikoa hedatzeko, berritzeko, birgaitzeko eta hobetzeko inbertsioak.

Eta, bestalde, inbertsio berriak gauzatzeari ekitea edo saneamendu gailuak nabarmen hobetzea edo berritzea (garai bateko HUPE txikiak eta bestelakoak), denborarekin zaharkituta geratu direnak. Horiek ordezkatzeko, hain zuzen, energia aurrezte eta langileetan aurrezte ekarriko du (ustiapen eta mantentze lanetan diharduten pertsonei eta orduetara dagokienez).

3. 2018ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak

Hona hemen 2018ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak, bai eta 2018ko aurrekontuan jaso ez direnak baina 2017ko abenduaren 31ko altxortegiko soberakinen kontura gauzatuko direnak ere:

3.1. Ur azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatuertarako inbertsioak

Jarduna	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
Jardun partekatuak horniduran	751.985	1.513.250
Zubietako (Donostia) goi hornidurarako sistema berria (1)	751.985	1.513.250
2. Jardun partekatuak saneamenduan	869.426	1.235.317
Errenterian, Oiartzun ibaiaren ezker bazterreko lztietara pasealekuko kolektorea (2)	499.742	624.384
Karabel auzoko (Hernani) saneamendu sistema berritzea eta urbanizazio lan osagarria egitea (3)	119.684	0
Ergoien industrialdearen (Urnieta) saneamendua	250.000	610.933
Guztira, partekatutako obrak	1.621.411	2.748.567

(1) Donostiako Udalak (% 80) eta AUSAK (% 20) elkarrekin finantzatutako jarduna. Alegia, 2019ko ekitaldian, 66.627 €. Kopuru horren % 20 AUSAK finantzatuko du.

(2) Gipuzkoako Foru Aldundiak (% 50) eta AUSAK (% 50) elkarrekin erdibana finantzatutako jarduna.

(3) Hernaniko Udalak (% 60,15) eta AUSAK (% 39,85) elkarrekin finantzatutako jarduna.

(4) Urnietako Udalaren finantzaketa partziala duen jarduna, industrialdean dauden enpresetan izan dezakeen eraginari kalterik egin gabe

3.2. Mankomunitatea/AUSaren ekimenez egindako obra berrietarako inbertsioak

Jarduna	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
1. Hornidura	255.000	860.000
Ur Azpiegitura Berritzeko Plana (UABP) garatzeko jardunak	205.000	530.000
1. Petritegiko EUBBaren estalkiaren barnealdea birgaitzea	150.000	100.000
2. I. Adarreko tunel zatia drainatzeko gailua lehengoratzeta eta hobetzea	30.000	0
3. Behe Kanalaren birgaitzea (ihesak konpontzea eta etxolak birgaitzea)	20.000	0
4. Monseko EUBBaren birgaitzea (hodiak irazgaitzea)	0	290.000
5. Darietako EUBBaren birgaitzea (hodi bat irazgaitzea)	0	60.000
6. Uraren hornidura sarea sektoretan banatzeko ebakitzeko balbulak ezartzea	0	60.000
7. Petritegiko EUTEan garbitzeko ura irteteko kanala birgaitzea	0	20.000
8. Añarbeko urtegitiko irristatzea egonkortzeko jardunak	5.000	0
Beste jardun batzuk	50.000	330.000
9. Behe Kanaleko Gorabeheren Plana lantzea (1. fasea)	50.000	0
10. Añarbeko presarako Larrialdi Plana ezartzea	0	330.000
2. Saneamendua	300.000	1.243.000
Ur Azpiegitura Berritzeko Plana (UABP) garatzeko jardunak	0	193.000
1. HUAren industria eraikinen barnealdeko zoladuren birgaitzea (2. fasea)	0	75.000
2. HUAren dekantagailuetarako sarrera emariak banatzeko kanalaren birgaitzea	0	58.000

Jarduna	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
3. Errenteriako HUPEaren eraikina estaltzea	0	45.000
4. UABP. Atari Ederreko HUPEan polipastoa aldatzea	0	15.000
Teleagintea Zabaltzeko Plana (TZP) garatzeko jardunak	0	20.000
5. Ibaetako HUPEaren eta Zubietako HUBaren artean zuntz optikoaren sarea ezartzea	0	20.000
Beste jardun batzuk	300.000	1.030.000
6. Usurbil-Lasarte Oriá-Hernani kolektoreko jardun osagarriak (2. fasea)	0	100.000
7. Saneamendu sareetan itsasoko urari sartzeari galaraztea (2. fasea)	0	50.000
8. Goi saneamenduko sareko hustubideetan kontrol elementuak jartzea (2. fasea)	0	20.000
9. Loiolako HUAko digestoreen estalduraren diseinua, hornidura eta kokapena	300.000	0
10. HUAko iriste eraikinaren oinezkoentzako sarbidea hobetzea	0	25.000
11. Kapueneko harrobiko ezpondak sendotzea (HUA)	0	35.000
12. HUAAn biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea" eta aparkalekua eraikitzea	0	(5) 600.000
13. HUAren sarreran aterpea eta kontrola jartzea	0	(5) 200.000
3. Obra txikiak	0	40.000
1. Hornidura	0	20.000
2. Saneamendua	0	20.000
4. Azterlanak, proiektuak eta beste idaztea	40.640	509.000
Hornidura	0	220.000
1. Hornidura obretan Laneko Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko laguntza teknikoa	0	14.000
2. 2018-2019rako proiektuen zorroa	0	25.000
3. Urnietako hiri sektoreak Añarbeko sistemako ur horniduran txertatzea	0	50.000
4. Behe Kanala birgaitzeko aukerak aztertzea	0	75.000
5. Petritegiko EUTEaren kontrol eraikinaren barnealdea birbanatzeko proiektua	0	18.000
6. Lastaolako UGPEaren proiektu arkitektonikoa birmoldatzea (Behe Kanalaren Alternatiba)	0	15.000
7. Mateogainan LTZrako pabiloi berriaren proiektua	0	23.000
Saneamendua	40.640	289.000
1. Saneamendu obretan Laneko Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko laguntza teknikoa	0	14.000
2. 2018-2019rako proiektuen zorroa	0	25.000
3. Donostiako Baleazaleen kaleko gainezka bidean solidoak atxikitzeko gailua ezartzeko proiektua	18.000	0
4. Goi saneamenduko Plan Gidaria	0	25.000
5. HUAAn biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea" eta aparkalekua eraikitzeko proiektua	10.000	30.000
6. Loiolako HUAren sarreran aterpea eta kontrola jartzeko lehiaketa eta proiektua	7.800	20.000
7. Lurreko hustubideko Urumeako sifoiaren egoerari buruzko azterlana	0	20.000
8. Usurbilgo Osinaldeko HUPEaren birgaitze proiektua	0	20.000
9. Hernaniko Floridako HUPEaren birgaitze proiektua	0	20.000
10. Errenteriako OIEBHK aldatzeko aukeren azterlana	0	35.000
11. Pasaiako Badia inguruan (Donostia) gainezka bidea eta deskonexioak berritzeko proiektua	0	50.000
12. Hernaniko Lastaolako sifoi aldatzeko edo kentzeko proiektua	4.840	0
13. Saneamendu kolektore handietarako sarbideak egokitzeko proiektua	0	30.000
5. Obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa	0	25.000
1. Hainbat obra egiteko lurzoruaren kudeaketa	0	25.000
Guztira, Mankomunitatea/AUSaren obra berriak	595.640	2.677.000

(5) Añarbeko Mankomunitateak diruz lagundutako jardunak

3.3. Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak

Arloa	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
1. Hornidura arloa	0	311.000
Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE	0	182.000
1. Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoak eta sistemak	0	10.000
2. Prozesu kontrolerako ekipoak eta sistemak	0	10.000
3. Datuak eskuratzeko eta kontrolatzeko sistemen programetarako lizentziak eguneratzea	0	22.000
4. Komunikazio sareak kable bidez gainbegiratzeko aplikazio bat garatzea	0	15.000
5. Hornidura arloan irratidigital bidezko komunikazioaren funtzionamenduari buruzko azterlanak eta probak	0	25.000
6. Birmineralizazioko koadro elektriko berria	0	40.000
7. Prozesuko aldagaien datu-baseen analisisa eta optimizazioa	0	15.000
8. EUTEaren hainbat puntutan argiztapen eta indar koadro berriak	0	40.000
9. Berrikuntzak EUTEaren kontrol aretoan: kontrolerako ordenagailuak eta altzariak	0	5.000
Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	0	54.000
1. Adarretan kutxatilen estalkiak ordezkatzeta	0	14.000
2. Alabergako (Pasaia eta Donostia) EUBBaren irteerako emari-neurgailuak ordezkatzeta	0	20.000
3. Amarako EUBBko transformazio zentroko goi tentsioko gelak aldatzea	0	20.000
Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa	0	35.000
1. Presako horma bularrak garbitzea	0	10.000
2. Ontziralekura sartzeko pistan babes uharridia jartzea	0	10.000
3. Presaren drainatzeak garbitzea eta edukiera sistema hobetzea	0	15.000
Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: LTZ	0	40.000
1. AUSAren azpiegituren mantentze programa hobetzea	0	30.000
2. Zenbait inbertsio txiki	0	10.000
2. Administrazio arloa	0	116.637
Administrazio zerbitzuekin loturiko inbertsioak:	0	79.137
1. Altzariak, lanabesak eta informatika zein ofimatika ekipoak erostea	0	19.137
2. Hornidura arloan segurtasun sistemak ezartzea	0	30.000
3. Saneamendu arloan segurtasun sistemak ezartzea	0	30.000
Komunikazioaren alorrean egindako inbertsioak:	0	37.500
1. Webgune korporatiboa garatzea	0	20.000
2. Barne eta kanpo komunikaziorako ekipamendua	0	7.500
3. Ingurumen hezkuntza eta dibulgaziorako sistemak eta materialak	0	10.000
3. Kalitate Kontrolaren arloa	0	75.000
Edateko Uren Laborategirako materiala eta ekipoak erostea	0	15.000
1. Zenbait ekipo erostea	0	15.000
Hondakin Uren Laborategirako materiala eta ekipoak erostea	0	60.000
1. ICP-OES (<i>inductively coupled plasma</i>) ekipo bat erostea	0	60.000
4. Saneamendu arloa	25.000	1.980.000
Saneamendu azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	0	1.350.000
1. Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoak eta sistemak	0	35.000

Arloa	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
2. Bi makina turbo-haiztzaile berritzea	0	400.000
3. Lehorketa termikoko ur industrialaren iragazpen sistema hobetzea	0	30.000
4. Lohiak birziklatzeko ponpen hornidura eta instalazioa	0	300.000
5. SCADA hobetzea	0	20.000
6. HUAko eraikinetan argiztapen sistemaren optimizazioa	0	65.000
7. Hondakin finak arbastatzeko eraikinean burdin sarea jartzea	0	100.000
8. Urumeako kolektorearen iriste obran burdin sareak jartzea	0	(6) 200.000
9. Birziklatze eraikinean burdin sareak jartzea	0	200.000
Saneamendu azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	25.000	605.000
1. Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoak eta sistemak	0	25.000
2. Monpasko urpeko hustubidean hondakinak garbitzeko burdin hesi berria eta prentsa jartzea	0	300.000
3. Saneamendu sarean hustutakoak kontrolatzeko jardunak	0	20.000
4. Ponpak berritzea eta buxaduren aurkako sorkiak dituzten ponpak erostea	0	50.000
5. Herrerako HUPEan bi ponpa ordezkatzeta	0	200.000
6. Zubietako HUPEan suteak hautemateko eta automatikoki itzaltzeko instalazioa ezartzea	0	10.000
7. HUPEan alarmak kudeatzeko sistema optimizatzea	25.000	0
Saneamendurako telekontrol instalazioak berritzea eta zabaltzea	0	25.000
1. TZP – Hainbat HUPE zuntz optiko bidez lotzea	0	25.000
	0	
Guztira, zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak	25.000	2.482.637

(6) Añarbeko Mankomunitateak diruz lagundutako jarduna

3.4. Inbertsioak, guztira

Inbertsioak	Zenbatekoa (BEZik gabe)	
	2017ko aurrekontutik	2018
Azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatueterako inbertsioak	1.621.411	2.748.567
Mankomunitatea/AUSAren obra berriak	595.640	2.677.000
Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak	25.000	2.482.637
Guztira:	(*) 2.242.051	7.908.204

(*) Kopuru horretatik 1.318.602 € Sozietatearen altxortegiko soberakinetik finantzatu dira; gainerako 923.449 €-ak, berriz, beste erakunde batzuen ekarpenekin (Donostiako eta Hernaniko udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia).

4. Planean jasotako inbertsioen memoria

4.1. Ur azpiegitura handitzeko eta hobetzeko obra partekatuetarako inbertsioak

Hornidura

*** Zubietako (Donostia) goi hornidurarako sistema berria**

Obra hau 2017ko ekitalditik dator (maiatzean esleitu zen, 3.164.670,14 €-ko zenbatekoarekin eta 19 hilabeteko epearekin), eta hasita dago 2017ko abuztuaz gero. Aurreikuspenen arabera, 2019ko martxoan amaituko da. 2018. urterako guztizko aurrekontua (2017tik datorren kreditua barne) 2.265.235 €-koa da: % 20 AUSAk finantzatuko du, eta gainerakoa, Donostiako Udalak.

Saneamendua

*** Erreterian, Oiartzun ibaiaren ezker bazterreko lztietara pasealekuko kolektorea**

Aurreko kasuan bezalaxe, obra 2017ko uztailean esleitu zen, 1.824.126,07 €-ko zenbatekoarekin eta 12 hilabeteko epearekin. Dagoeneko hasita dago, eta aurreikuspenen arabera, 2018ko urrian amaituko da. Aurten, falta den obra gauzatzea dago aurreikusita, 1.124.126 €-ko zenbatekoarekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta AUSAk erdibana finantzatuko dutenez, azken honek 562.063 € ordaindu beharko ditu.

*** Karabel auzoko (Hernani) saneamendu sistema berritzea eta urbanizazio lan osagarria egitea**

Karabeleko HUPEaren desagertzearen eta auzoko saneamendu sarea berritzean oinarritutako jarduna. Dagoeneko esleitura dago, eta aurki hasiko dute lana. Hernaniko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, AUSAren kontura joango da obraren kostuaren % 39,85. 2018ko ekitaldiari dagokion gauzatze aurrekontua 119.684 €-koa da.

*** Ergoien industrialdearen (Urnieta) saneamendua**

Urnietako Ergoien industrialdeak zuzenean uretara bideratzen ditu bere hondakin ur industrial guztiak. Jardun honen bitartez, isuri horiek bildu egingo dira, eta Urnietako goi saneamenduko sarera bideratuko dira, kolektore berri baten bitartez.

Jardunaren zenbatekoa 860.933,53 €-koa da, eta gauzatzeko 7 hilabeteko epea izango du. Aurreikuspenen arabera, 2018an gauzatuko da obra guztia.

Obraren finantzaketa Urnietako Udalaren eta AUSAren kontura joango da. Udalak bigarren mailako kolektoreak ordainduko ditu (alegia, aurrekontuaren % 16,27); AUSAk, berriz, hodi biltzaile nagusia ordainduko du (hots, aurrekontuaren % 88,73).

4.2. Mankomunitatea/AUSaren ekimenez egindako obra berrietarako inbertsioak

Hornidura

Ur Azpiegitura Berritzeko Planean (UABP) jasotako jardunak

Era horretako jardunek berebiziko garrantzia dute azpiegituren bizitza baliagarria luzatzeko orduan, eta haiei esker lortuko da funtzionamendu baldintza egokiei eustea eta denboraren joanak pixkanaka-pixkanaka eragiten duen hondamenak eta gastatze saihestezinak erabat ez hondatzea.

* **Petritegiko EUBBaren estalkiaren barnealdea birgaitzea**

EUTEan dagoen erreferentziatzko biltegiaren estalkiaren barnealdea birgaitzea da asmoa, oraintxe bertan nahiko egoera kaskarrean baitago, bere egiturako altzairuzko armazoietakoz batzuk agerian daudelako. 2017an irtenbide posible batzuen aurretiko azterlana egin ostean, gaur egun birgaitze proiektua idazten ari gara, eta aurreikuspenen arabera 2018ko urtarrilean amaituta egongo da. Jardunera 250.000 € bideratu dira.

* **I. Adarreko tunel zatia drainatzeko gailua lehengoratzeko eta hobetzea**

Horniduraren I. Adarreko tunelaren drainatzea hobetzean oinarritutako jarduna; zehazki, Donostiako saihebidetako tunelaren (Aiete auzoaren beheko aldean) eta Bera Bera auzoaren arteko zatian. Gaur egun, tuneleko ekialdeko ahoa urez gainezka dago, eta ia ezinezkoa da bertara sartzea. Jarduna 2017rako zegoen aurreikusita, baina lan horiek Axular lizeoko jarduerarekin koordinatzeko premia zegoenez (obra hortik sartzea baitago aurreikusita), proposatu da lanak udan gauzatzea.

Horretarako, 30.000 € jaso dira aurrekontuan, guzti-guztiak 2017. urtekoak.

* **Behe Kanalaren birgaitzea (ihesak konpontzea eta etxolak birgaitzea)**

Aurreko urteetan Behe Kanalean egindako lanekin jarraituz, jardunaren helburua izango da kanalera sartzeko etxolak barnetik zein kanpotik birgaitzea (pintaketa lanak, igeltserotza lanak, iturgin lanak, etab.), eta bertan izaten diren ihesak edo sarkinkeriak konpontzea. Horretarako aurrekontuan jasotako dirua: 20.000 € (aurreko kasuan bezala, 2017koa).

* **Monseko eta Darietako EUBBen birgaitzea**

Jardunen helburua izango da, hain justu, biltegietakoz hodian barnealdea birgaitzea eta irazgaiztea. Hurrenez hurren, honako zenbateko hauek aurreikusi dira: 290.000 € eta 60.000 €.

* **Hornidura sarea sektoretan banatzeko ebakitze balbulak ezartzea**

Hornidura sareko adarren barnealdea birgaitu ahal izateko, ezinbestekoa da alde aurretik sarea sektoretan banatzea eta, ondoren, hoditeria barnerako sarbide puntu batzuk jartzea. Jardun honen bidez, III. Adarrean ebaketa balbula bat ezartzea dago aurreikusita, Astigarragako EUBBera desbideratu ondoren. Horretarako, 60.000 € jaso dira aurrekontuan.

* **EUTEko iragazkiak garbitzeko uraren irteera kanala (3. fasea)**

Jardun honen helburua da, hain zuzen, 2014an Petritegiko EUTEko iragazkiak birgaitzeko hasitako lanekin jarraitzea. Iragazkiak garbitzeko uraren irteera kanala birgaitzea da xedea, 20.000 €-ko zenbatekoarekin.

* **Añarbeko urtegiko irristatzea egonkortzeko jardunak**

2017ko ekitaldian eta aurrekontuan garatutako jardun bat denez, komenigarria da zenbateko txiki bat (5.000 €) gordetzea lan horiek datorren 2018ko ekitaldira luzatzen badira ere, lekuan bertan jarduna egiteak ekar litzakeenak ezin jakin baititzakegu.

Beste jardun batzuk

* **Behe Kanaleko Gorabeheren Plana lantzea (1. fasea)**

2017an zehar, Behe Kanaleko Gorabeheren Plana idatzi zen. Planaren helburua zen, hautsiz gero, zer larrialdi edo presakako jardun egin zitezkeen definitzea. Nahiz eta badirudien Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak, Kantauriko Ur Konfederazioaren bitartez, Behe Kanalaren Alternatiba eraikitzea dela oraintxe bertan hurbilekoena, Planean bildutako jardunetako batzuk behar-beharrezkoak dira Behe Kanala behar bezala mantenduko dela bermatzeko, eta epe luzeago batera, goitik behera birgaitu egingo dela bermatzeko.

Lehenengo fasean, oraintxe iragangaitzak diren eremuetarako sarbide pistak eraikitzea proposatzen da. Horretarako, dagokion eraikuntza proiektua ari gara idazten. Jardun honetarako zenbatekoa 50.000 €-koa da.

* **Añarbeko presarako Larrialdi Plana ezartzea**

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioaren Presetako eta Urtegiako Segurtasunari buruzko Araudi Teknikoa betetzeko, behar-beharrezkoa da Añarbeko presarako Larrialdi Plana tokian bertan ezartzea. Ministerioak oso aurreratuta daramatza haren onespenez izapideak. Horregatik, Planean xedatutakoa garatuz, bertan jasotako obrei eta proposamenei heldu behar zaie. 2018rako ohartarazpenerako gailu soinu-dunak (sirenak) ezartzea dago aurreikusita, Urumea ibaiaren ibilguan zehar, Ereñozu ingururaino.

Jardunerako 330.000 € behar dira, eta lanak gauzatzeko aurreikusitako epea 4 hilabetekoa da.

Saneamendua

Ur Azpiegitura Berritzeko Plana (UABP) garatzeko jardunak

* **HUAren industria eraikinen barnealdeko zoladuren birgaitzea (2. fasea)**

2017an hasitako jarduna: iriste eta goratze eraikinetako zoladuren birgaitzea. 2018an, berriz, baheketa, lohien birziklatze eta deshidrataziorako eraikinei helduko zaie. Eraikin guztietarako aurrekontua 75.000 €-koa izango da.

* **HUAren dekantagailuetarako sarrera emariak banatzeko kanalaren birgaitzea**

Dekantagailuen fabrika obraren parte bat birgaitzea eta iragazgaiztea da helburua. Eraikuntza horrek dagoeneko hamar urte baino gehiago bete dituzenez, metala eta hormigoia korrosio egoera kezkarria daude, eta ezinbestekoa da horiek konpontzea, berriz ere egoera egokian egon daitezuten eta denbora luzean bitzta baliagarria ziurtatuta izan dezaten. Jardun honetarako aurrekontuan jaso dena: 58.000 €.

* **Errenteriako HUPEaren eraikina estaltzea**

HUPEaren eraikinak duen irudi kaskarra dela tarteko (etengabe pintaketa ugari egiten dituztelako), ezinbestekoa da jardun honi heltzea: fatxadak kanpo egitura batekin janztea (xareta edo antzekoren bat), itxura egokia izan dezan berriro, eta berriz pintaketak egin ez ditzaten.

2017an 45.000 € gorde ziren horretarako, eta erabaki zen inbertsioa atzeratzea, Oiartzun ibaiaren ezker bazterreko Iztieta pasealekuko kolektorearen obrak amaitu arte, Errenteriako HUPEaren alboan beste eraikin bat altxatzea eskatzen dutenak. Horrenbestez, 2018an, 45.000 € jaso dira aurrekontuan.

* **UABP. Atari Ederreko HUPEan polipastoa aldatzea**

Atari Ederreko HUPEko ponpetan aldaketak egin ondoren, polipastoak lerrokatuta egoteari utzi dio, eta horrek zaildu egiten du estazioa ustiatzea. Horregatik, aldatzea aurreikusi da. Jardun horretara 15.000 € bideratu dira.

Teleagintea Zabaltzeko Plana (TZP) garatzeko jardunak

* **Ibaetako HUPEaren eta Zubietako HUBaren artean zuntz optikoaren sarea ezartzea**

Planaren helburua da telekontrolerako sarea (telefonía, kable eta zuntz optikoa) zabaltzea, hobetzea eta birgaitzea, sareetako funtzionamendu parametroak EUTera eta HUARA iritsi ahal izateko, hurrenez hurren; baita alderantziz ere, bi lotune zentraletan dauden kontrol zentroetatik ustiatze aginduak eta kontsignak helarazteko Añarbeko sistema konplexuko EUPEetan, HUPEetan, EUBBetan eta abarretan dauden urrutiko estazioetara.

Zehazkiago, 20.000 €-ko aurrekontua duen jardun honi esker, zuntz optikoa jarriko da Ibaetako HUPEaren eta Zubietako HUBaren artean.

Beste jardun batzuk

* **Usurbil-Lasarte Oria-Hernani kolektoreko jardun osagarriak (2. fasea)**

2016ko apirilean jarri zen zerbitzuan kolektore hori, eta harrezkero, beharrezkoa izan da hainbat hobekuntza lan egitea; besteak beste, honako hauek: sistemako hustubideetan jardunak egin behar izan dira, indarrean dagoen ingurumen araudira egokitzeko; HUPEetarako sarbideak hobetu eta aldatu egin behar izan dira; barneko osagarri eta ekipo batzuk tokiz aldatu behar izan dira; ponpak lekualdatzeko goratze

eta garraio gailuak ezarri behar izan dira, etab. Jardun horietara 100.000 € bideratu dira.

* **Saneamendu sareetan itsasoko urari sartzeari galaraztea (2. fasea)**

Loiolako HUAtik datorren isurkinaren kalitatea hobetzeko asmoz, ezinbestekoa da itsasoko urari saneamendu sareetan sartzeari galaraztea, gazitasunak oso eragin negatiboa baitauka araztegiaren tratamendu biologikoan, eta, horren ondorioz, baita haren errendimendu orokorrean ere. Jardun honetarako, guztira, aurrekontuan jaso dena: 50.000 €.

* **Goi saneamenduko sareko hustubideetan kontrol elementuak jartzea (2. fasea)**

Hobetu egin nahi da saneamendu sarearen funtzionamenduari buruz HUA jasotzen den informazioa, bereziki prezipitazio handiko egoeretan ingurune hidrikoan gertatzen diren hustuketei dagokienez, lehenbailehen antzemateko matxuren, elektrizitatearen tentsio jaitsieren eta abarren ondoriozko nahi gabeko hustuketei. Baita edozein egoeratan gertatutako hustuketen berri jasotzea eta horiek neurtzea ere, sarearen egokitasuna zein desegokitasuna ebaluatzen, gertaera horien ingurumen ondorioak ebaluatzen, okerrak zuzentzen, etab. 20.000 €-ko hornidura du jardunak.

* **Loiolako HUAko digestoreen estalduraren diseinua, hornidura eta kokapena**

HUAko digestoreek oso itxura hondatua dute kanpotik, eta beharrezkoa da estetikoki hobetzea. Horretarako, ingurunearekin bat etorriko den estaldura jarri beharko zaio, Ospitaleetara doan errepidetik argi ikusteko modukoa. Era berean, estaldura horrekin, dezentezko isolamendu termikoa lortuko da, eta bereziki neguko hilabete hotzetan energia aurrezten lagunduko du, araztegiako lohien digestio anaerobikoko prozesua egiteko tenperatura egokia izango baitu.

Aurreikuspenen arabera, jarduna gauzatzeak 300.000 €-ko kostua izango du.

* **HUAko iriste eraikinaren sarbidea hobetzea**

Helburua da HUAko kontrol eraikinetik iriste eraikinera sartzeko eskailerak hobetzea, lan espazioetako segurtasun araudia bete dezaten. Jardun horretara 25.000 € bideratu dira.

* **Kapueneko harrobiko ezpondak sendotzea (HUA)**

HUA eraikitzeke lanak egin bitartean, HUA zeuden ezpondetako batzuk babestu egin ziren, baina ez guztiak. 2013an, luizi txiki batzuk gertatzen hasi ziren, nahiko maiz. Horregatik, egonkortu egin behar izan zen lehendik zegoen ezponda, transformazio zentroko eraikinaren atzekoa. 2014an, berriz, gasometroaren atzealdeko ezpondak egonkortu ziren. 2018rako aurreikusi da inolako babesik gabe dagoen eremu bakarra egonkortzea; alegia, harea kentzeko eraikinaren eta transformazio zentroko eraikinaren artean kokatuta dagoena. Lan hauetarako aurreikusi den kopurua: 35.000 €.

* **HUA biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta aparkalekua eraikitzea**

Loiolako HUA multzo osoaren ahalmenak ugaltzeko, zein hobekuntza eta txukuntze urbanistiko zein arkitektonikorako planen baitan, eta behin araztegi osoa antolatzen

oinarrizko dokumentua idatzita dagoela, HUAko biltegi berria eraikitzeko proiektua idazteari eta ondoren gauzateari ekin beharko zaio (behar-beharrezkoa da bertan dauden saturazio eta mugak direla tarteko); tartean, "garbigune" izeneko (alegia, uren tratamendu prozesuan eta hondakin uren laborategian sortutako hondakinak aldi baterako, hustu arte, gordetzeko), bai eta eraikin horren osagarri izango den urbanizazioa eta ibilgailuak aparkatzeko eremu edo azalera berria ere, autoen, motorren zein bizikleten aparkalekua handitzeko eta arrazionalizatzeko. Obra hori gauzatzeko sailera 600.000 € bideratu dira.

* **HUAren sarreran aterpea eta kontrola jartzea**

Aurreko jardunaren testuinguru berdin-berdina dauka. Asmoa da 2018. urtean Loiolako araztegirako sarreran aterpea eta kontrola gauzatzeko proiektua aurrera eramatea. Beraz, hala dagokionean, segurtasun zaintzaile bat jarriko da, deiak, profesionalen sarbidea, bisitak, kamioien pisaketak, segurtasuna... kontrolatzeko. Jardun hau gauzatzeko 200.000 €-ko aurrekontua gorde da.

Hornidurarako eta saneamendurako obra txikiak

Dagoeneko gauza jakina da urtero-urtero larrialdiko zenbait jardun txiki gauzatu behar izaten direla ezinbestean. Berez gutxi izaten direnez eta euren nolakotasunari erreparatuta, Añarbeko Uren lantalde teknikoak hartzen ditu, zuzenean, horien gaineko erabakiak. Dena den, komenigarria da aurreikustea ea horrelakoak zenbatean behin eta zer kopurutan egiten diren. Hala, obra txikien atal bat ireki behar da, oraingo honetan gutxiago hornitua, oro har izan diren aurrekontu murrizketen ondorioz; eta horrelakoak gertatzen direnean, atal horren kargura aurreikusi beharko dira.

2018ko ekitaldian, 20.000 €-ko bi sail jasoko dira aurrekontuan era horretako jardunetarako, nola hornidurarako hala saneamendurako.

Azterlanak, proiektuak eta beste idaztea

Ohi den moduan, arestian aipatutako inbertsioak gauzatzeko, ezinbestekoa da Planean zehaztea gauzatze proiektuak idazteko behar diren zenbatekoak. Eta horri, gainera, beste plan edo azterlan teorikoago batzuk gehitu behar zaizkio. Hauek dira, zerrenda batean bilduta, lan horietarako aurreikusitako kopuruak.

Hornidura

* **Hornikuntza obretan Laneko Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarrean dagoen legediak eskatzen du enpresak edo profesionalak izendatzeko, horretarako beharrezkoa den gaitasunarekin, aurrera eramaten diren obra guztietan (hau da, Obra eta Inbertsioen Planaren barnean egiten diren guztietan), laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanak egiteko.

Lan horiek kanpoan kontratatzen direnez, Añarbeko Uren tamaina aintzat harturik, aurrekontuan 14.000 € jarri dira hornidura obretan nahiz saneamendu obretan aplikatzen den nahitaezko jarduera horretarako.

* **2018-2019rako proiektuen zorroa**

Ekitaldian zehar jarduteko beharren bat agertzen bada erantzun ahal izateko, eta horiek aurrera eramateko kanpoko ingeniari- eta enpresaren batek idatzi behar badu aurretik proiektua, 25.000 € jaso dira aurrekontuan.

* **Urnietako hiri sektoreak Añarbeko sistemako ur horniduran txertatzea**

Helburua da, hain zuzen, Añarbeko sistemako ura Oiamarreko eta Goikoetxeko edateko uraren banaketa biltegietara hornitzeko beharrezkoak diren obren azterlana - eta ondorengo proiektua- egitea. Oraintxe bertan, udalaren bilketak erabiltzen dira horietarako. Beraz, horri esker, udalerriko hiri sektore berriak txertatuko lirateke "Añarbe kalitateko" edateko uraren horniduran. Jardun honetarako aurrekontuan jaso dena: 50.000 €.

* **Behe Kanala birgaitzeko aukerak aztertzea**

Dagoeneko itxaropen handiak daude Kantauriko Ur Konfederazioak Behe Kanalaren Alternatiba eraikitzeari aurki ekingo diolako. Beraz, ezinbestekoa da kanalaren birgaitzearekin jarraitzea ahalbidetuko duen prozesuaren ideia pentsatzen eta gauzatzen hastea. Horretarako, birgaitze lan horretarako alternatiben azterketa bat idatziko da, eraikuntza proiektua idazten hasi aurretik. Jardun honetarako aurrekontuan jaso dena: 75.000 €.

* **Petritegiko EUTEaren kontrol eraikinaren barnealdea birbanatzeko proiektua**

Petritegiko EUTE eraiki eta zerbitzuan jarri denetik denbora dezente igaro denez, eta azken urteotan bertako kontrol zein ustiapen ekipamenduetan izandako aldaketa nabarmenak direla tarteko, beharrezkoa da estazioaren kontrol gela eta alboko espazioak egokitzea; tartean, alboan dagoen edateko uren laborategia behin-behinean berritzeko edo zabaltzeko lanak egitea. Proiektua idazteko 18.000 € gorde dira aurrekontuan.

* **Lastaolako UGPEaren proiektu arkitektonikoa birmoldatzea (Behe Kanalaren Alternatiba)**

Behe Kanalaren Alternatibaren Ingurumen Eraginaren Adierazpenaren izapideak egin bitartean, oinarrizko ingurumen erakundeak proiektu horri buruzko kontsultak egin dizkie hainbat erakunde publikori. Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak inposatutako baldintzetako bat da, hain justu, lehendik dagoen proiektu arkitektonikoa berrikustea, Lastaolako garai bateko zentral hidroelektrikoaren eraikinaren balio arkeologikoak eta arkitektonikoak gordetzeko (zentral horrek dagoeneko ez du erabilerarik, eta aurreikusita dago hor ezartzea etorkizuneko pampaketa estazioa). Proiektua horretarako 15.000 €-ko aurrekontua gorde da.

* **Mateogainan LTZrako pabiloi berriaren proiektua**

Donostiako Udalari erositako Mateogainako lursailean Laguntza Teknikoko Zerbitzurako (LTZ) eta Biltegirako pabiloi berria eraikitzeko proiektua idaztea da asmoa. Pabiloia oso baliagarria izango da Añarbeko Uren jarduera osoa garatzeko behar diren ibilgailuak, ekipoak, tresnak eta abar gordetzeko. Horretarako, 23.000 €-ko saila prestatu da.

Saneamendua

*** Saneamendu obretan lan segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarrean dagoen legediak eskatzen du enpresak edo profesionalak izendatzeko, horretarako beharrezkoa den gaitasunarekin, aurrera eramaten diren obra guztietan (hau da, Obra eta Inbertsioen Planaren barnean egiten diren guztietan), laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanak egiteko.

Lan horiek kanpoan kontratatzen direnez, Añarbeko Uren tamaina aintzat harturik, aurrekontuan 14.000 € jarri dira hornidura obretan nahiz saneamendu obretan aplikatzen den nahitaezko jarduera horretarako.

*** 2018-2019rako proiektuen zorroa**

Baliteke ekitaldian zehar jardun premiaren bat izatea, aldez aurretik azterlan teorikoak eta kanpo ingeniartzako enpresek gauzatzeko proiektuak idaztea eska dezaketenak. Horregatik, 25.000 € gorde dira aurrekontuan.

*** Donostiako Baleazaleen kaleko gainezka bidean solidoak atxikitze gailua ezartzeko proiektua**

Gaur egun derrigorrezkoa da goi saneamenduko sareko gainezka bide nagusietan solidoak atxikitze elementuak ezartzea. Beraz, lehenengo esperientzia gisa, proposatu da 2018an dagokion proiektua idaztea, Santa Katalinako HUPetik Loiolako HUAra doan kolektorearen Baleazaleen kaleko (Donostia) gainezka bidean beharrezkoa den gailua ezartzeko. Horretarako, 18.000 € bildu dira aurrekontuan.

*** Goi saneamenduko Plan Gidaria**

Añarbeko Saneamendurako Plan Gidariko fase edo etapa berri bat da, aurreko ekitaldietan hasia eta garatua eta, duen izaeragatik eta saneamendu azpiegituren bilakaeragatik (zabaltzeak, berritzeak, birgaitzeak edo birmoldatzeak jasaten baitituzte sarritan), etengabeko eguneratze lana eskatzen du ia. Horretarako, 25.000 € bereizi dira aurrekontuan.

*** HUA n biltegi berria, hondakin entzako "garbigunea" eta aparkalekua eraikitze proiektua**

Arestian izen berarekin deskribatu dugun jardunari dagokion proiektua idaztean datza. Horretarako, 40.000 €-ko saila prestatu da.

*** Loiolako HUAren sarreran aterpea eta kontrola jartzeko lehiaketa eta proiektua**

Aurreko kasuan bezala, proiektu honi dagokion jarduna arestian deskribatu dugu. Eraikin txiki horri eman nahi zaion berezitasun arkitektonikoa eta esanahi estetiko eta funtzionala direla tarteko, proiektuaren enkargua egin aurretik lehiaketa mugatu bat egitea proposatu da, hiruzpalau arkitektoekin edo arkitektura estudiorekin.

Lehiaketaren saria litzateke, beraz, irabazleari eskatzea eraikuntza proiektua egiteko. Enkargu horietarako guztietarako, 27.800 € gorde dira aurrekontuan.

* **Lurreko hustubideko Urumeako sifoiaren egoerari buruzko azterlana**

Lurreko hustubideari dagokion “Urumeako Sifoiak” duen konfigurazioa dela medio, ikuspegi hidraulikotik ezinbestekoa da, besteak beste, partikula solidoen behin-behineko biltegiari jarraipen arretatsu bat egitea. Gaur egun zehatz-mehatz zer egoeratan dagoen egiaztatzeko, berme guztiekin ikuskaritza bat egin beharko da, hori gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material garrantzitsuak eskura izanik. Zeregin honetarako aurrekontuan jaso dena: 20.000 €.

* **Usurbilgo Osinaldeko HUPEaren birgaitze proiektua**

2016ko apirilean Usurbil-Lasarte Oriá-Hernani kolektorea martxan jarri ostean, beharrezkoa da orain Usurbilgo Osinaldeko HUPE hobetzea, uholdeei aurre egiteko eta ustiapen lanetarako segurtasuna handitzeko. Beharrezkoa den eraikuntza proiektua idatzi beharko da, beraz; eta horretarako, 20.000 € beharko direla aurreikusitua da.

* **Hernaniko Floridako HUPEaren birgaitze proiektua**

Hernaniko Floridako HUPEk, Urumeako kolektorearekin batera eraikitakoak, behar-beharrezkoa du goitik beherako birgaitze lana; izan ere, zaharkituta dago, eta gainera, egoera hobetzeko eta ustiapen lana errazteko premia du, indarrean dagoen araudira egokituz. Jardun honek 20.000 €-ko aurrekontua du.

* **Errenteriako OIEBHK aldatzeko aukeren azterlana**

Oiartzun ibaiaren eskuin bazterreko hiri kolektorea (OIEBHK) ibaiaren ibilguan bertan eraiki zen, eskuin bazterreko bideratze harresiaren alboan; eta, horrenbestez, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoaren eremu barnean. Aspaldi gauzatu zuen Iparraldeko Ur Konfederazioak, eta duela urte gutxi, Errenteriako Udalak Añarbeko Uren Mankomunitateari eskualdatu zion.

Berriki, Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintzialak AUSAri jakinarazi dio kolektore hori eskuin bazterreko pasealekura eraman beharko dela, ibaiaren jabari publikoari oztopo hori kentzeko. Zenbateko eta konplexutasun tekniko handiko jarduna denez, prozesuaren hasieran, jardunaren alternatibei, zailtasunei, planoei eta zenbatekoari buruzko azterlan bat idatzi beharko da. Azterlan horretarako 35.000 € bereizi dira.

* **Pasaiaiko Badia inguruan (Donostia) gainezkabidea eta deskonexioak berritzeko proiektua**

Añarbek Uraren Euskal Agentziarekin eta Donostiako Udalarekin hitzarmena sinatuko duenez, Txingurri erreka inguruetan eta haren alboan Pasaiaiko Badiaren saneamendua amaitzeko, eta nahiz eta lana finantzatzeko hiru erakundeen parte hartzeko borondateak oraindik ere berresteko dauden, bai eta alderdi bakoitzaren konpromisoak esleitzeko ere, Añarbek hitzarmenean txertatutako proiekturen bat gauzatu beharko du, eta proiektu hori idatzeko 50.000 €-ko saila izendatu beharko da.

* **Hernaniko Lastaolako sifoa aldatzeko edo kentzeko proiektua**

Lastaolako sifoa hobetzeko aukeren azterlana idatzita dagoenez, eta aukerarik onena hautatuta, 2018an berau garatzeko eraikuntza proiektua idatzi beharko da. Horretarako, 4.840 € bereiziko dira sailean.

* **Saneamendu kolektore handietarako sarbideak egokitzeko proiektua**

Berriki, agerian geratu da saneamendu sareko kolektore handietarako sarbideak egokitzeko dagoen premia larria (Urumea, Herrera-HUA eta Santa Katalina-HUA), aipatutako kolektore horien ikuskaritza eta mantentze baldintzak hobetu daitezzen. Proiektua idazteak ekarriko duen kostua 30.000 €-koa izango dela aurreikusi da.

Obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa

* **Hainbat obra egiteko lurzoruaren kudeaketa**

Mankomunitatea/AUSAko Obra eta Inbertsioen Planeko (OIP) ohiko atalean, bertan jasotako aurrekontuen kopuruak honako hauetarako izango dira: Mankomunitateak eraiki beharreko azpiegiturek harrapatzen dituzten lurzoruen jabeek eman beharreko kalte-ordainak betetzeko, eta kanpoan kontratatuz gero, haien kudeaketarako zerbitzu teknikoak ordaintzeko.

2018ko ekitaldian, 25.000 €-ko aurrekontua bereiziko da hainbat obra egiteko lurzoruaren kudeaketarako.

4.3. Zerbitzuak ustiatzearekin lotutako inbertsioak

Hornidura, Saneamendua, Kalitate Kontrola eta Administrazioa arloek egin beharreko inbertsioak dira. Oro har, inbertsio bakoitzak arestian aipatutakoek baino balio txikiagoa izaten du (lehen aipatutakoak Proiektu eta Obren Arloari dagozkio).

Ahalik eta zerbitzu onena ematea eta instalazio elektromekanikoak zein elektronikoak berritzea, birgaitzea edo eguneratzea dira inbertsio hauen helburu nagusiak; batez ere, ekipoak zaharkituta gelditu ez daitezzen (gehientsuenetan, katalogotik kendu dituztelako edo euren bizitza baliagarria amaitu delako). Ondasunak eskuratzeko inbertsioak ere biltzen dituzte; hala nola laborategiko gailu analitikoak, informatika eta ofimatika ekipoak, ibilgailuak, etab.

Orotara, 2.482.637 € beharko dira datorren ekitaldian. Hona hemen zehatz-mehatz dena jasota. Gorago azaldutako jardun gehienek tituluak edo azalpenak argi asko azaltzen ditu haien helburua eta edukia, eta kontuan izanik ugari direla eta aurrekontu sailak oso berezita daudela, garrantzitsuenen deskribapen xehea besterik ez dugu jasoko ondoren, eta antzeko helburuak eta ezaugarriak dituzten jardun txikiak, berriz, batera azalduko ditugu:

Hornidura arloa

Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE

Guztira 182.000 € baliatuta, honako hauetara bideratutako ekipo eta sistemetan inbertsio txikiak egin nahi dira:

- * Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoak eta sistemak (10.000 €)
- * Prozesu kontrolerako ekipoak eta sistemak (10.000 €)
- * Datuak eskuratzeko eta kontrolatzeko sistemen programetarako lizentziak eguneratzea (22.000 €)
- * Komunikazio sareak kable bidez gainbegiratzeko aplikazio bat garatzea (15.000 €)
- * Hornidura arloan irrati digital bidezko komunikazioaren funtzionamenduari buruzko azterlanak eta probak (25.000 €)
- * Birmineralizazioko koadro elektriko berria (40.000 €)
- * Prozesuko aldagaien datu-baseen analisia eta optimizazioa (15.000 €)
- * EUTEaren hainbat puntutan argiztapen eta indar koadro berriak (40.000 €)
- * Berrikuntzak EUTEaren kontrol aretoan: kontrolerako ordenagailuak eta altzariak (5.000 €)

Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak

Aurreko atalekoen antzekoak diren helburuekin, eta 54.000 €-rekin, hiru jardun hartu dira aintzat aurrekontuan:

- * Adarretan kutxatilen estalkiak ordezkatzeko (14.000 €).
- * Alabergako (Pasaia eta Donostia) EUBBaren irteerako emari-neurgailuak ordezkatzeko (20.000 €).
- * Amarako EUBBko transformazio zentroko goi tentsioko gelak aldatzea (20.000 €).

Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa

Añarbeko presako auskultatzea hobetzearekin lotuta azken urteetan inbertsio nabarmenak egin ondoren, ekitaldi honetarako hiru jardun proposatu dira, guztira 35.000 € bideratuz horietara:

- * Presako horma bularrak garbitzea (10.000 €)
- * Ontziraletara sartzeko pistan babes uharridia jartzea (10.000 €)
- * Presaren drainatzeak garbitzea eta edukiera sistema hobetzea (15.000 €)

Hornidura azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: LTZ

Bi sail aurreikusi dira; orotara, 40.000 €:

- * AUSAren azpiegituren mantentze programa hobetzea (30.000 €).
- * Zenbait inbertsio txiki (10.000 €).

Administrazio arloa

Administrazio zerbitzuekin loturiko inbertsioak:

- * **Altzariak, lanabesak eta informatika zein ofimatika ekipak erostea**

2018ko ekitaldian 19.137 € bereizi dira bulegoko altzari, ekipo informatiko eta ofimatiko, telefono instalazio, eta zabaltze behar berriei erantzuteko edo aire eta argiteria gailuetan eta abarretan sozietateko eraikinetako beste instalazioetan aldaketa txikiak egiteko.

- * **Hornidura eta saneamendu arloetan ziberseguetasun sistemak aztertzea eta ezartzea**

Asmoa da sistema informatikoak prestatzea kanpoko sarbide seguruak sortu ahal izateko, hirugarrenek geuk nahi ez dugula erasotzea galarazteko. Jardunerako 60.000 € bereizi dira (30.000 € arlo bakoitzarentzat).

Komunikazioaren alorrean egindako inbertsioak:

- * **Webgune korporatiboa garatzea**

Oro har, gizarte komunikaziorako, irudi korporatibo eta informazio plataforma egokiak izateko, nahiz -oso bereziki- matxuraren bat gertatuz gero Añarbeko presaren ustiapenari buruzko informazioari begira hartutako instituzio eta gizarte konpromisoari erantzuteko, behar bezala garatu behar da Añarbeko Urak erakundearen ziber-orria edo webgunea, eta 20.000 € berezi dira horretarako.

- * **Barne eta kanpo komunikaziorako ekipamendua**

Barnean hartzen ditu sarbideen seinalizazioa, egin beharreko barne ibilbideak, azpiegiturara egindako bisitetarako babes eta segurtasun materialak, bai eta ikus-entzunezko gailuak ere. 7.500 € berezi dira.

* **Ingurumen hezkuntza eta dibulgaziorako sistemak eta materialak**

Erakusketa materialak (bideoak, maketak, informazio panelak...) osatzeko eta eskuratzeko saila da, bai eta bestelako material didaktiko eta hezkuntza baliabide batzuetarako ere, bisita gidatuetan arreta eskaintzeko eta ingurumenari buruzko sentiberatze kanpainerako. Horretarako, 10.000 € bereizi dira aurrekontuan.

Kalitate Kontrolaren arloa

Edateko Uren Laborategirako materiala eta ekipoa erostea

* Zenbait ekipo erostea

Zehazki 15.000 € berezi dira, Petritegiko EUTEko edateko uren laborategirako tresnak, ekipoa eta gailuak erosteko eta berritzeko.

Hondakin Uren Laborategirako materiala eta ekipoa erostea

* ICP-OES ekipoa erostea; alegia, akoplamendu induktiboko plasma (ICP), emisio optikorako espektrofotometroarekin (OES) batera, beharrezkoa baita analisi prozesuak arintzeko.

Laginen emaitzak zehaztean eta edateko uren laborategiko zehaztapenen sentiberatasunean bizkortasuna hobetzen asko lagunduko duen ekipo hau eskuratzeko 60.000 €-ko saila berezi da.

Saneamendu arloa

Saneamendu azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA

Loiolako HUAk Añarbeko Uren beste instalazio batzuek baino gehiago behar du etengabeko hobekuntza eta modernizazio lana; besteak beste, bere ekipoetan, parametro hidraulikoen prozesu, kontrol eta erregulazio gailu fisiko-kimiko zein biologikoetan, materialetan eta lan arriskuen prebentziorako ekipoetan.

Guztira 1.350.000 €-rekin, hamar jardun horiek egingo dira HUAko uren eta lohien tratamendu lineetako zati batzuetan hainbat gailu berritzeko eta jartzeko eta prozesuak hobetu ahal izateko, ustiatze eta mantentze langile beharrak eta energia elektrikoaren kontsumoa ahal den neurrian bederen murrizteko, eta horri esker, gainera, instalazioetako lanetan murriztu egingo dira laneko segurtasun eta osasun arriskuak.

Hauek dira jardunak:

* **Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoa eta sistemak (35.000 €)**

* **HUAko bi haizatzaila berritzea:**

2016an, HUAk zeuden lau turbo-haizatzailaetatik bi ordezkatu genituen, energia eraginkortasunarekin lotutako arrazoiak zirela tarteko. 2018an, gainerako biak aldatuko ditugu. 400.000 €-ko hornidura du jardunak.

* **Lehorketa termikoko ur industrialaren iragazpen sistema hobetzea**

Araztegiko lohien lehorketa termikoko oraingo 200 µm-ko sareko iragazkia aldatu, eta uztaizko beste iragazki eraginkorrago bat jartzean datza. 30.000 € gorde dira jardunerako.

* **Lohiak birziklatzeko ponpen hornidura eta instalazioa**

Lohien hiru birziklatze ponpek hamabi bat urte daramatzate funtzionamenduan, eta helburua da errendimendu handiagoko beste batzuk jartzea horien tokian. 300.000 € gorde dira jardunerako.

* **SCADA hobetzea (20.000 €)**

* **HUAko eraikinetan argiztapen sistemaren optimizazioa (65.000 €)**

* **Hondakin finak arbastatzeko eraikinean burdin hesia jartzea**

Hondakin finen eraikinak Quiltón etxeko hiru bahe zituen jatorrian, bai eta laugarrena kokatzeko hutsune bat ere. Urte hauetan guztietan, mantentze kostu handia izan dutenez, baheetako hiruren tokian ekipo berriak jarri dira. Oso emaitza ona izan dute, eta mantentze premiak ere txikiagoak izan dira. Helburua da 2018an laugarren ekipoa instalatzea, eta horretarako, 100.000 € gorde dira.

* **Urumeako kolektorearen iriste obran burdin hesiak jartzea**

Urumeako kolektorearen iriste obretako bi burdin hesiek hamabi urte dituzte. Berritu egin dira, funtzionamendua hobetzeko, baina ez da nahikoa izan. Orain, beraz, 2011. urtean instalatu direnetik emaitza bikainak eman dituzten beste bi kolektoreetako (Santa Katalina eta Herrera) erduekin ordezkatzeta da asmoa. 200.000 € gorde dira jardunerako.

* **Birziklatze eraikinean burdin hesiak jartzea**

Birziklatze eraikinean instalatuta dauden bi burdin hesiek aurreko bien arazo berbera dute, eta, horrenbestez, berdin ordezkatzeta proposatu da. 200.000 € gorde dira jardunerako.

Saneamendu azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak

Guztira sei jardun egingo dira hainbat HUPEtan laneko segurtasun eta osasun baldintzak hobetzeko eta buxaduren aurkako bulkagailua duten ponpak jartzeko, emari-neurgailuak instalatzeko, sareetan kontrol gailuak ezartzeko... bai eta Usurbil-Lasarte Oriá-Hernani kolektoreko instalazioak hobetzeko ere. Guztira, 605.000 € bereizi dira horretarako.

* **Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipoa eta sistemak (25.000 €)**

* **Monpasko urpeko hustubidean hondakinak garbitzeko burdin hesi berria eta prentsa jartzea**

Monpasko urpeko hustubidean, jatorrian, Quiltón etxeko bi bahe eta prentsa bat zeuden. Urteen joanarekin, eta mantentze kostu handia dutenez, ekipo berria ezarri

zen 2015ean, hondakinak garbitzeko prentsa batekin, eta oso emaitza onak lortu dira. Beraz, helburua da lehendik dagoen ekipoaren ordezkari bat jartzea. 300.000 € gorde dira jardunerako.

* **Saneamendu sarean hustutakoak kontrolatzeko jardunak**

Asmoa da goi saneamenduko sareko hustubideak HUAko SCADArekin zerikusia duten datuak lortzeko sistemekin hornitzen jarraitzea, hustutako emariak kontrolatzeko. 20.000 € gorde dira jardunerako.

* Ponpak berritzea eta buxaduren aurkako sorkiak dituzten ponpak erostea (50.000 €)

* **Herrerako HUPEan bi ponpa ordezkatzeari**

Garai batean Añarbek "oinordetzan" jaso zuen Herrerako HUPEak bi putzu ditu, elkarren artean komunikatuta daudenak, eta putzu bakoitzean lau ponpa. Ponpa horiek ez daude ondo dimentsionatuta, eta puntutik kanpo egiten dute lan; horregatik, errendimendua oso txikia da. Helburua da lehendik dauden bi ponpa buxaduren aurkako sorkiak dituzten beste bi ponparekin ordezkatzeari. 200.000 € gorde dira jardunerako.

* **Zubietako HUPEan suteak hautemateko eta automatikoki itzaltzeko instalazioa ezartzea (10.000 €)**

* **HUPEan alarmak kudeatzeko sistema optimizatzea (25.000 €)**

Saneamendurako telekontrol instalazioak berritzea eta zabaltzea

* **TZP – Hainbat HUPE zuntz optiko bidez lotzea (25.000 €)**

5. Gauzatu ahal izateko diru sarrera jakin batzuk egitea edo kostuak aurrezteko beharrezkoa duten inbertsioak

Azken urteotan bildutako eskarmentu handiak egiaztatu digu ekitaldi bakoitzean Inbertsio Plana gauzatzeari ezinbestean dakartzala aldakuntza batzuk. Hala, gauza jakina da obren lizitazio prozesuan beharrezkoak gertatzen direla oro har esleipen aurrekontuan, lizitazio prozesuetan lehia jarduten duten enpresen arteko lehia logikoaren ondorioz.

Beharrezko horien zenbatekoa testuinguru ekonomiko orokorraren arabera izaten da, eta are gehiago, obra publikoaren zein eraikuntzaren merkatuaren arabera - AUSAk Mankomunitatearen izenean egiten dituen obren likidazioa oso justu-justukoa izaten da beti, eta batzuetan, esleipen aurrekontua baino pixka bat txikiagoa-. Aurrezki horiek, oro har, handiak bihurtzen dira azkenerako (gaur egun, guztizko aurrekontuaren % 15 edo % 20 ingurukoak).

Bestalde, Inbertsio Plana garatzean eta gauzatzean, agerian geratzen da, tarteka, jardun baten irismen tekniko eta ekonomiko hasiera batean aurreikusten zena baino txikiagoa dela; batzuetan, gainera, dagokion azterlana edo proiektua idatzi ondoren, edo xehetasun teknikoak lekuan bertan ondo aztertu ondoren, ziurtatzen da arestian eskura geneukan informazioa ez zela oso-oso zehatza, eta, beraz, jarduna egiazki ez

dela beharrezkoa. Ez dago esan beharrik horrek ere erabilgarri uzten dituela, partzialki edo erabat, horretarako gordeta zeuden baliabide ekonomikoak.

Esan beharra dago, halaber, noizbait gertatu izan dela Inbertsio Planean aurreikusten ziren zenbatekoak eskasak izatea; izan ere, zenbateko horiek zehazki zein diren jakiten baita gauzatze proiektua idatzita dagoenean, ez aurretik. Eta noizbait gertatu izan da, oso gutxitan egia esan, obraren baten likidazioa esleipen aurrekontuaren gainetik egotea; horren arrazoiak, oro har, lurzoruaren izaerarekin dauka zerikusia, bai eta nahastuta dauden zerbitzuak birjartzearekin ere, horien garrantzia ezin baita zehazki aurreikusi proiektua idaztean.

Azken batean, azaldutako egoera guztien ondorioz, gehienetan (halaxe erakusten du azken urte hauetako guztietako eskarmentuak), soberakin ekonomiko bat lortzen da, azken uneko inbertsioetara bideratzen dena; betiere, zenbateko txikia edo "atomizatua" dutenak, eta ordezkatu, handitu edo hobetu behar diren ekipo zein gailuetara bideratutakoak.

Haatik, egokitzat jotzen da aurreko ekitaldian bezalaxe, Planean beste idazpuru bat txertatzea; zehazki, arestian esan bezala, gauzatu ahal izateko diru sarrera jakin batzuk egitea edo kostuak aurreztea beharrezkoa duten inbertsioena.

Izan ere, gaur egun, zenbait aktiboren besterentzeagatik edo beste iturri batzuetatik etorriko diren ezohiko diru sarrerak edukitzeko aukera aurreikusten da. Horien kudeaketa nahiko aurreratuta dago, baina ez da burutuko 2018ko ekitaldia hasi arte.

Hala, komenigarria litzateke arestian azaldutako egoerak zehaztuz eta gauzatzuz gero Mankomunitateak egin ditzakeen inbertsio jardueren zerrenda osatzea. Hauek dira zerrendan jasotako jardunak:

Inbertsioak	Zenbatekoa (BEZik gabe)
1. Saneamendu kolektore handietarako sarbideak egokitzea	150.000
2. Mateogainan (Donostia) LTZrako pabiloi berria gauzatzea	325.000
3. Donostiako kultur etxea hornitzeari buruzko erakusketa	100.000
4. Hornidura adarretan bi kutxatila instalatzea	95.000
5. Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura sistema optimizatzea	1.000.000
6. Darietako EUBBtik Lezoko industrialdeetarako hornidura indartzea	80.000
7. Lugañeneko HUPE berriaren hornidurarako ekarpenak egitea (saneamendua)	310.000
8. Loiolako HUAko tratamendu biologikoko putzuak estaltzea	2.200.000
